



## EUROPAKO HAZKUNDEA

### Europako ekonomien narriadura galgatu da

**Euroguneako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasak




**Europar Batasuneko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasak




Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute bai Euroguneak bai Europar Batasunak 2017ko amaieran hasi zen jaitsiera erritmoa egonkortzea lortu dutela. Hain zuzen ere, bost hiruhilekoz jarraian motel-tzeko joera erakutsi ondoren eta beste ekonomia krisi bat iritsiko zelako kezka agertu ondoren, 2019ko lehen hiruhilekoan bi eremu horiek 2018ko amaieran jasotako tasak berdindu zituzten. Izan ere, Euroguneako BPGa %1,2 hazi zen urte arteko tasan eta Europar Batasunarena, berriz, %1,5.

Alemanian, kontsumo pribatua eta inbertsioa, batez ere eraikuntzan eta ekipamenduan eginikoak, areagotu ziren, barne eskaria eta BPG bultzatuz. Frantzian, joka horien krisia apalduta, ekonomia jarduerak indarra irabazi zuen. Eskariaren agregatu guztiak lehen baino gehiago hazi ziren eta horrek bide eman zion ekonomia jarduerari %1,1 hazteko.

**Alemaniko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Frantziako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Italiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Italiak ere bat egin zuen joera horrekin eta 2018ko amaierako hazkunde hutsalaren ondoren, herrialde hartako ekonomia jarduera %0,1 handitu zen. Gehikuntza ahula da, baina hobekuntza txiki bat da aurreko emaitzaren aldean. Erresuma Batua, berriz, %1,8 hazi zen, barne eskariaren bultzadari esker, kanpo eskariak jarduerari hamarren batzuk kendu zizkion bitartean. Inportazioen bultzada biziak (%10,2) azaltzen du igoera, Brexitaren hurbiltasunak erosketak aurreratu dituelako.

Azkenik, Espainiak hazkundea lideratu zuen eremuko herrialde nagusien artean. INEren lehen zenbatespenaren arabera, ekonomia espainiarra %2,4 hazi zen, hots, aurreko datua baino hamarren bat gehiago. Kontsumo pribatuak erritmoa galdu zuen, baina inbertsioaren sendotasunak konpentsatu zuen, bereziki ekipamenduan eginikoak. Horri esker, barne eskariak 2,2 puntu ekarri zizkion jarduerari. Gainontzeko bi hamarrak kanpo eskariaren eskutik iritsi ziren. Hala ere, ekarpen horren atzean inportazioen murrizketa handiagoa dago, esportazioak ez zirelako hobetu. Enpleguari dagokionez, Espainian %2,8 hazi zen urte arteko tasan, hau da, aurreko epealdian baino bi hamarren gehiago. Horri esker, lanaldi osoko 510.000 lanpostu baliokide sortu ziren azken urtebetean.

**Espainiako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Espainiako enplegua**

Urte arteko aldakuntza tasak

